

Euskal AEko industria-jarduera % 3,9 jaitsi da 2021eko urtarrilean


Aurreko hilaren aldean (2020ko abendua), Industria-produkzioaren indizea % 2,0 igo da

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko urtarrilean % 3,9 murriztu da Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2020ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, % 2,0 hazi da Euskal AEko industria-produkzioa, aurreko hilarekin, 2020ko abenduarekin, alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2021eko urtarrileko indizearen bilakaera negatiboa izan da industria-sektore handi guztietan, 2020ko urtarrilarekin alderatuta. *Energiak*, energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea barne, % 12,1 egin du behera.

Ekipo-ondasunak % 5,2 jaitsi dira; *Bitarteko ondasunak*, % 1,7. Lehenengoan artean, motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen fabrikazioa edo aireontziak eta itsasontziak egitea dira nagusi; bigarrenen artean, berriz, metalurgiako eta metalezko produktuen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Azkenik, *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 1,2ko urte arteko jaitsiera izan dute, nahiz eta osagaien portaera desberdina izan den. Hala, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 7,1

egin dute gora, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 3,1 egin dute behera. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Hilabete arteko aldakuntzak, 2021eko urtarrila 2020ko abenduaren gainean, bilakaera positiboa izan du industria-sektore handi guztietan, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren. *Energia* % 7,7 hazi da; *Bitarteko ondasunak*, % 1,1; eta *Ekipo-ondasunak*, % 0,5. *Kontsumo-ondasunen* produkzioa, oro har, % 2,5 igo da, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 3,0ko gehikuntzaren eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* % 2,4ko gehikuntzaren ondorioz.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko urtarrila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Urt2021 / Urt2020	A(Urt2021) / A(Urt2020)(*)	Urt2021 / Abe2020	Abe2020 / Aza2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-3,9	-3,9	2,0	-1,2
Araba/Álava	-4,1	-4,1	1,9	-2,2
Bizkaia	-7,1	-7,1	3,1	-2,6
Gipuzkoa	-0,4	-0,4	0,9	0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-1,2	-1,2	2,5	0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrek	7,1	7,1	3,0	0,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	-3,1	-3,1	2,4	0,9
Ekipo-ondasunak	-5,2	-5,2	0,5	-1,5
Bitarteko ondasunak	-1,7	-1,7	1,1	1,3
Energia	-12,1	-12,1	7,7	-5,9

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila xehatuago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko urtarilean urte arteko portaera positiboa izan dutenak izan dira *Kautxua eta plastikoak* (% 5,0ko gehikuntza produkzioan) eta *Garraio-materiala* (% 1,0ko igoera). Hauek izan dira, aldiz, pisu handieneko sektoreetan, jaitsierarik handienak eduki dituztenak: *Metalurgia eta produktu metalikoak*, % 7,7ko jaitsierarekin; *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina*, % 7,4koarekin; eta *Makineria eta ekipoa*, % 5,6ko jaitsierarekin, egutegiaren eraginak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-7,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-7,4
09 - Kautxua eta plastikoak	5,0
13 - Makineria eta tresneria	-5,6
14 - Garraio-materiala	1,0
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-4,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-2,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeke industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industria-produkzioaren indizearen urtarrileko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan. Halatan, Bizkaian % 7,1 jaitsi da, Araban % 4,1 eta, azkenik, Gipuzkoan % 0,4.

Hil arteko terminoetan, 2021eko urtarrila 2020ko abenduaren aldean, eta urtaro-ondorioak kendu ondoren, Bizkaian produkzioa % 3,1 hazi da, Araban % 1,9 eta Gipuzkoan % 0,9.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, urtarrileko indizea laginaren **% 93,06ko** estaldurarekin kalkulatu da –informazioa otsailean gaindi jaso da-.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62